



EBAZPENA (02/2009 espedientea: DONOSTIAKO SUSTAPENA SA)

Osoko bilkura

Javier Berasategi Torices jauna, presidentea.

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, presidente ordea eta kidea.

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, kidea.

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria.

Gasteizen, 2009ko maiatzaren 20an.

Zineazpiegiturak Oiartzun SL-k Donostiako Sustapena SAren aurkako salaketa aurkeztu zuen, baina zehapen-prozedurarik ez hasteko proposamena dago, 02/2009 espedientean bilduta. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA-k) honela ebatzi du espediente hori (auzitegia goran aipatutako horiek osatu dute, eta Joseba Andoni Bikandi Arana izan da ponentziagilea).

GERTAKARIAK

- (1) Zineazpiegiturak Oiartzun SLk Donostiako Sustapena SAren aurka aurkeztu zuen salaketa dela-eta, Lehiaren Aldeko Euskal Zerbitzuak (LAEZ izango da aurrerantzean), 2009ko otsailaren 6an, "zehapen-prozedurarik ez hasteko proposamena" egin zion Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 49.3 artikuluan oinarriturik, eta, hain zuzen ere, lege horretako aginduak urratu ote diren zantzurik ez dagoelako. LAEZren proposamenean, eginbide hauek aipatzen ziren:
- (2) 2008ko azaroaren 28an, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saileko erregistroan, Lehiaren Batzorde Nazionaleko Ikerketa Zuzendaritzaren ofizio bat sartu zen. Kontua zen Igancio Liceaga Sagarzazuk eta Enrique Santiago Rodriguezek erakunde horretan salaketa bat aurkeztu zutela, Zineazpiegiturak Oiartzun SL merkataritza-sozietatearen izenean eta ordeko, eta Donostiako Sustapena SA enpresaren aurka, eta, ofizio horren bidez, salaketa hori LAEZera igortzen zutela. Egun horretan bertan, Lehiaren Aldeko Euskal Zerbitzuak adierazi zuen baietz, gai hori bere eskumenpekoa zuela, eta eskatu zuen bidaltzeko jatorrizko agiria.
- (3) Gauza hauek salatu zituzten:



Ba omen dago enpresa bat diru publikoa erabiliz finantzatu dena, enpresa salaketa-egileak jarduten duen merkatu berean jarduteko.

Salaketa egin dutenek azaldu dutenez, ordezkaten duten merkataritza-sozietateak, batez ere, industriarako eta zerbitzuetarako hainbat ekipamendu sustatzen eta eraikitzen jarduten du, eta, kasu honetan, Zinealdea delako ikus-entzunezkoen gunea garatzen lan egiten dute, zinemagintzarekin, ikus-entzunezkoen industriarekin eta haien osagarriekin zerikusi zuzena duten jarduerak sustatzeko.

- (4) Salaketa-egileek adierazi dutenez, komunikabideetan agertu da Donostiako Sustapena SAK antzeko beste gune bat eraikitzeko akordioa hartuko duela, ikus-entzunezkoetarako. Enpresa horren zati bat Donostiako Udalaren esku dago, eta gune hori udal horren industrialde batean eraikiko litzateke, Zuatzun hain zuzen ere. Publizitatean agertu denez, errenta-sistema bonifikatuak antolatuko dituzte, arlo horretan diharduten enpresak sustapen publikoko gune horretara joan daitezten.
- (5) Salaketa-egileek adierazi dutenez, litekeena da hori horrela eginez gero lehiaren aurka jokatzeko aritzea, ordezkaten duten enpresarekin lehiari dabilen enpresa pribatu bat diru publikoa erabiliz finantzatzeko baimenak azpitik, zertarako eta egitasmo berdina sustatzeko, non eta 10 kilometro baino hurbilago. Nekez egin ahal izango omen diote aurre kalteari.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

- (6) Aplikatu beharreko legeen arabera, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak betetzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Aldeko Zerbitzuaren eginkizunak. Hauek dira lege horiek: apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuko 12. artikuluan xedaturik dagoena, eta otsailaren 28ko 42/2006 Dekretuko 12.1 artikuluko r) letran xedaturik dagoena. 81/2005 Dekretuaren bidez sortu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia, eta haren bidez agindu zitzaion zer duen egiteko Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Aldeko Zerbitzuari; eta 42/2006 Dekretuaren bidez, berriz, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta zereginak zehaztu ziren.
- (7) Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko Legeko 49.3. artikuluan xedatu denez, Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta (gure kasuan, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak eta Lehiaren Aldeko Zerbitzuak, zortzigarren xedapen gehigarrian dioenaren arabera) bere esku du, baten batek, ustez, lege horren 1, 2 eta 3. artikuluetan datozen debekuetakoren bat urratu badu, baina hala izan dela adierazten duen zantzurik ez dagoela uste badu, prozedurak ez hastea erabakitzea eta jarduerak artxibatzea.
- (8) Ekarririk agiriak aztertu ondoren, ez dirudi Lehiaren Defentsari buruzko Legeko 1, 2 eta 3. artikuluetako edozein urratu ez ote den adierazten duen zantzurik badagoenik.
Izan ere, LDLko 1. artikuluan jartzen duenez, derrigorra da hainbat eragile



ekonomiko edo elkarte bat asmoz ados jartzea, eta oraingo honetan behintzat ez da horrelakorik egon, salaketa Donostiako Sustapena SAren aurka besterik ez baita jarri, hau da, badirudi egindakoa hark bakarrik egin duela.

- (9) LDLko 2. artikuluan jartzen duenez, alde batetik, garbi egon behar du aztertu beharreko eragile hori dena delako merkatuan aurretiaz ere nagusi dela, eta, beste alde batetik, nagusitasun hori gehiegi baliatu duela.
- (10) Kasu honetan, dena delako merkatu hori izango litzateke Gipuzkoan ikus-entzunezkoen arlorako industria-ekipamenduak eta zerbitzu-ekipamenduak eraikitzen diharduena, eta, merkatu horretan, eragile ekonomiko pribatuak dihardute, baina baita ekonomia sustatzeko lanak egiten dituen hainbat toki-sozietate publiko ere. Eta horietako bat da, hain zuzen ere, Donostiako Sustapena SA. Hau da, udal-sozietate bat da, Donostiako ekonomia garatzen laguntzeko ardura duena, eta, hortaz, nekez izan ahal da merkatu horretan nagusi.
- (11) LDLko 3. artikuluan jartzen duenez, berriz, lehia desleiala debekatuta dago, lehia askea faltsutzea dakarrelako eta interes publikoan eragina duelako. Interes publikoan eragina izateak esan nahi du lehia faltsutu izanak merkatuan eragin nabarmena duela, eta kasu honetan salatu duten gertakari horrek ezin du horrelako eraginik izan.
- (12) Aldiz, salatu duten gertakari hori, kontzeptuz, laguntza publikotzat ere har daiteke, salatu duten enpresa hori enpresa publikoa denez, baina hori bai, benetan errenta-sistema bonifikatuak erabiltzen badira, eta ez merkatu-prezioko errentak.
- (13) LDLko 11.5 artikuluan jartzen duenez, autonomia-erkidegoetako lehiaren aldeko organoek badute, beren lurraldeko autonomia-administrazioek edo toki-administrazioek emandako laguntza publikoak direla-eta, txostenak egiterik.
- (14) Aplikatu beharreko legeen arabera, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren ardura da Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek ematen dituzten laguntza publikoei buruzko txostenak egitea. Hauek dira lege horiek: apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuko 6. artikulua, martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuan idatzida dagoen bezala. 81/2005 Dekretuaren bidez sortu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia, eta haren bidez agindu zitzaizkion zereginak Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Aldeko Zerbitzuari.



EBAZPENA

LEHENA.- Lehiaren Aldeko Euskal Zerbitzuak auzitegi honen eskuetan utzi duen proposamena berrestea, hau da, zehapen-espedienterik ez hastea eta salaketa artxibatzea, ez dagoelako Lehiaren Defentsari buruzko Legeko aginduak urratu izana adierazten duen ezer. Salaketa Jose Ignacio Liceaga Sagarzazuk eta Enrique Santiago Rodriguezek aurkeztu zuten, Zineazpiegiturak Oiartzun SL merkataritza-sozietateren izenean eta ordezeko gisa, Donostiako Sustapena SA enpresaren aurka.

BIGARRENA.- Donostiako Sustapena SAko zuzendaritza nagusiari adieraztea jakin nahi dugula zer-nolako oinarriak eta baldintzak argitaratu dituzten ikus-entzunezkoen inguruko enpresak Ikus-entzunezkoetarako Berrikuntza Gunean kokatu ahal izateko, eta informazio hori bidaltzeko eskatzea. Proiektu horren zati bat Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak ordaintzen du, Avanza planaren barruan, Ingenio España 2010 programaren baitan.

Ebazpen hau Lehiaren Aldeko Euskal Zerbitzuko arduradunari eta interesatuari jakinarazi. Interesatuari jakinarazi ebazpen honek bertan amaituta uzten duela administrazio-bidea, eta, aurka egin nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakeela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietako Salan, jakinarazten denetik bi hilabeteko epean.

Gasteizen, 2009ko maiatzaren 20an.

PRESIDENTEA
JAVIER BERASATEGI TORICES

PRESIDENTE ORDEA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

KIDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI